



BARREN

TOKIKOM



Oholtzan berriro

KALE ANIMAZIOA: "LA CUADRILLA DE LA TÍA" eta "LOS DUENDES DE LA VERDAD"



ABENDUAK
15 eta 22
17:30 - 19:30

Ikuskizunen zikloa Eibarko kaleetan zehar. Publikoak goza dezan da helburua eta horretarako hainbat motatako kale ikuskizunek entretenimendu, dibertsio eta parte hartzeko giroa sortzen dute.

ANTZERKIA: PINOCHO **GLU GLU**



ABENDUAK 26
17:00
Coliseo Antzokia

Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntutat hartuta, Glu-Gluk Pinotxo dokar eszenatokira. Familia osoarentzako antzeziana da, ikasketatik komediara, antzerkitik musikalera eta dantzatik jolasera...

5€

KONTZERTUA: MIKE OLDFIELD **TUBULAR TRIBUTE**



ABENDUAK 27
21:00
Coliseo Antzokia

Oldfielden zuzeneko klasiko batzuk jotzen dituen eta bere diskografian ezinbestekoak diren kantuak errepasatzen dituen talde asturiar berria da "Tubular Tribute".

20€

14€
Coliseoan ikusgai

ZINE EMANALDIAK COLISEOAN



ABENDU
OSOAN ZEHAR
Coliseo Antzokia

- La sociedad literaria y el pastel piel de patata
- Superlópez
- El Grinch
- Aquaman
- Ralph rompe Internet
... ETA GEHIAGO

Coliseoan ikusgai
%30

INKLUSIOA ESKOLETAN

hitzaldia



Hizlariak: Jara Larreategi eta Jimmy Brosa
Abenduak 18, asteartea
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 18:30ean



Aurreko bost urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan.

 Karpetak	 Kamisetak	 Patinentzako poltsa	 Eskulan jokoak	 Sudaderak	 "Landareak lantzen 2019" gida-liburuak	
 Pin-ak	 Bonu oparia	 Estutxeak	 Aurikularrak	 Eguzkitako betaurrekoak	 Motxilak	
 <p>Elgoibarko Izarraren aldeko TONBOLA Abenduak 24, 11:00etatik 14:00etara, Kalegoen plazan</p>			 Botilatxoak	 Margoak	 Aterkiak	 Galtzerdiak
 <p>1.000 erregalu baino gehiago...</p>			 "Lotu puntuak" liburuxka	 Irakurtzeko atrila	 Saskiak	... eta opari gehiago!



Harremanetarako: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus edo 943 741 626

ANA ALBERDI

Kazetaria



Hartu kontrola, aukeratu rola

gula; askorentzat, Euskaraldia aukera bat izan baita hizkuntzari konplexu eta beldurrik gabe eutsi, eta erabiltzera ausartzeko. Beste askorentzat, kontzientzia garatu eta euskara berreskuratzeko.

Eta Marina dut gogoan; Bilboko denda batean lan egiten duen Valladolideko laguna. Belarriprest. June, Bilbotarra jaiotzez, 20 urteren ostean Euskaraldiarekin batera hasi da berriz ere amarekin euskaraz hitz egiten. Eta Tytti, Finlandiatik, diseinatzailer gisa bere ibilbide profesionala burutzera Donostiara etorri den emakumea. "Eus-

kal Herrian gaude, eta ezingo nuke gure kultura ulertu gure hizkuntza ikasi gabe". Ahobizi, hala azaldu zidan euskararekiko zuen sentimendua.

Baina gure familia eta lagunartean bertan ere sortu dira istorioak. Ohitura aldaketak. Bi hizkuntzatan elkarritzetak; eta saiakerak, belarriprest izan arren, euskaraz egiteko. Eta zein polita izan den.

11 egun hauek olatua izan dira Euskararentzat, euskaltzaleontzat. Euskal Herri osoan 220.000 pertsona batu dituen olatua, alegia. Orain, Euskaraldian parte hartzea erabaki genuen bezala, erabaki behar dugu, olatua indartzen jarraitu eta konpromisoari eutsi, edo besterik gabe, euskarak posible egin duen aukera erraldoi hau galtzea.

Orain bai; hartu kontrola lagun, eta aukeratu, hemendik aurrera, zein den zure rola.

"11 egun hauek olatua izan dira euskararentzat, euskaltzaleontzat"

Orain dator benetako erronka. Txapa kenduta, norberak bere eguneroko rola aukeratu behar du, eta konpromisoari eutsi.

Euskaraldiak 11 istorio laga dizkigu; eta nire lana dela eta, euskara are gehiago sentitzera bultzatu nauten hainbat pertsona ezagutu ditut egun hauetan. Gogorik, asmo onik eta ilusiorik falta ez zaizkien hainbat pertsona, alegia.

Azaroaren 23an bertan, txapa jantzi eta ordu gutxira konturatu nintzen ariketa sozialak ondorio positiboak utziko zizki-



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldeggi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara:
barren@elgoibarkoizarra.eus

► 2018KO JUBILATUEN ASTEA.


Eskerrak eman nahi diogu dena oso ondo irteten lagundu digun lagun-taldeari. Eskertzekoa izan da katekisten lan bikain eta astuna txokolatada eta bazkari jendetsuetan, Udalaren babesak; alkatearena, zinegotziena, eta Kultura eta Euskara saileko teknikariena, zabalkundearen lagundu digun prentsarena: Aitor Zabala (*Diario Vasco*), Jabi Leon (*Noticias de Gipuzkoa*) eta BARREN; Unai Arrieta, Gotzon Garate Udal Liburutegia, parrokia, Eguneko Zentroa, Nagusilan, Brigadako langileak, Gurutze Gorria, DYA, tabernako Pedro eta Manoli, Eguren orkestra, batzordeko gizon eta emakumeak, eta aparteko pertsona borondatetsuen ahalegina. Denen ahalegina batuta, Jubilatuen Astea egin ahal izan dugu.

Jubilatuena Biltokiko zuzendaritza

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datarren eskutitz argitaratuko.



“Pertsona bere gorputzean eroso sentiarazi eta barnean bizi gogoa piztea ditut helburu beti”

Estetika ikasketak bukatu berritan, eskuetan zerbait berezia zuela esan zion irakasle batek Iratxe Garateri (Elgoibar, 1986), eta Terapia naturalak ikasten jarraitzeko gomendatu zion. Halaxe, Kiromasaia, Makrobiotika, Terapia Kraneko-Sakrala eta Hirutasun esentzien terapia florala ikasi zuen. Orain, Psikologiako gradua egiten ari da. Zortzi urtean egon da terapia natural eta masaje zentru batean lanean, eta denbora horretan esperientzia handia pilatu du.

❖ Zein da zure lanaren helburua?

Orokorrean esanda, hauxe: pertsoneri beraien egunerokoan ongizatea eta oreka berreskuratzen laguntzea. Nire helburua pertsona bere gorputzean eroso sentiaraztea da, barnean bizi gogoa piztea eta niri bizitza erraztu didaten moduak eta ohiturak ezagutaraztea. Edozein adineko pertsonari zuzendutako teknikak dira. Parte fisikoa masajeen bitartez lantzen dut, eta parte animikoa Kraneo Sakrala eta Hirutasun esentziekin.

❖ Egiten duzunak balio du haurdunaldirako?

Bai, etapa honetan gorputzak aldaketa handiak izaten ditu: erretentzioa, aldaka eta lunbarren tentsioa, aldaketa hormonalak eta abar. Masajeen bidez gorputzeko ondoeza arindu dezakegu eta Hirutasun esentziekin ama eta umearen arteko loturan sakondu daiteke.

❖ Eta azkenik, zer dira Hirutasun Esentziak?

Hirutasun Esentziak gure mendietako loreekin egindako lore esentzia terapeutikoak dira. Gertatzen zaigunaren jatorria ezagutzuz, gure gorputzaren gainkarga, emozio eta pentsamendu negatiboak identifikatzen eta disolbatzen laguntzen digute. Maila fisikoan, emozionalean eta animikoan eragiten dute eta ongizatea berreskuratzen laguntzen digute. Edozein adinetako pertsonak har ditzakete, haurdun dauden emakumeek eta jaioberriei barne, eta edozein teknika edo tratamendu terapeutikoren osagarri dira.

 IRATXE
TERAPIAK

 Txillarre Ekodenda
San Bartolome, 29

 622 712 386

2019ko egutegia aurkeztu du Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak 2019ko egutegia aurkeztu zuen eguaztenean. Elgoibarko Koloreak izan da aurtengo gaia. 31 herritarrek hartu dute parte aurten, eta guztira, 135 argazki aurkeztu dituzte. 7.000 egutegi txiki kaleratu ditu Udalak eta herri osoko postontzietan banatuko ditu. Egutegi handiak, aldiz, elkarte, eskola, erakunde eta abarretan banatuko ditu, eta Kultur Etxean edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskuratzeko aukera ere egongo da. Argazki saritu bakoitzak 70 euroko erosketabonua jaso du. Hauek dira irabazleak: Gurutze Ariznabarreta, Vicente Guinea (3 argazki), Izaskun Estibaritz, Manuel Sanchez, Ana Loyola (2 argazki), Jose Ramon Cabrera, Maria Exposito, Mikel Askasibar, Regina Isasti eta Denis Saiz. Datorren urteko lehiaketarako gaia *Kirola Elgoibarren* izango da.

Marrazki lehiaketan, bestalde, Herri Eskolako eta Ikastolako 109 ikasle hartu dute parte eta saridunek 30 euroko erosketabonua, marrazteko materiala eta saritutako marrazki guztiekin prestatutako egutegi berezi bana eskuratu dute: Hauek izan dira irabazleak: Naroa Ansola, Salsabil Salhi, Uxue Altzerreka, Sara Mousaif, Aitana Gonzalez, David Cornel, Luken Viñaras, Nora Beitia, June Rodriguez, Naroa Muguruza, Laia Lopez de Sabando, Unax Tapia.

Korrikaren aldeko materiala salgai, AEK euskaltegian

Korrikaren aldeko arropa erosteko aukera dago AEK euskaltegian, astelehenerik ostiralera (16:00-18:00). Era berean, Korrika Laguntzaile txartela ere egin daiteke, 12 euroren truke. Laguntzaile egiten denak pina, txartela eta katalogoa jasoko ditu etxean, eta Elgoibarko zein Euskal Herri osoko hainbat komertzioetan deskontuak izango ditu. Interesatuak elgoibar@aekeus helbidera idatzi edo 607 601 423 telefonora deitu dezakete.

Astelehenean eman behar da errege magoen desfilearako izena

Ekialdeko errege magoen desfilean parte hartzeko izenematea astelehenean izango da, Udal Liburutegian, 16:30etik 19:00etara bitartean. LH4tik DBH1era artekoek hartu dezakete parte.

Jaiotza lehiaketa, domekan, eta jaiotza mekanikoa, 21 ean

Katekesiak antolatutako jaiotza lehiaketa domekan izango da. Partaideek 11:00etarako aurkeztu behar dituzte euren lanak San Bartolome parrokiako arkupeetan, eta epaimahaiak aukeratuko ditu lanik onenak. Sari banaketa meza ondoren egingo dute. Lan guztiak San Frantzisko kaleko 24 zenbakian dagoen lokalean jarriko dituzte ikusgai urtarrilaren 7ra arte. Elgojaiotza taldeak, bestalde, gaur zortzi inauguratuko du jaiotza mekanikoa. Astegunetan 17:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta asteburu eta jai egunetan, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

Nerabeentzako neguko aisialdi eskaintza zabaldu du Gaztelekuak

Elgoibarko Gaztelekuak gazteentzako neguko aisialdi ekintzak eskainiko ditu abenduaren 19tik urtarrilaren 5era. Besteak beste, bingo jokoak, Just Dance eta ping pong txapelketak, sukaldaritza lehiaketak eta San Lazaro tailerrak egingo dituzte. Halaber, abenduaren 27rako irteera antolatu dute Bilboko Lasergunera (10 euro) eta urtarrilaren 2tik 4ra Gasteizen egingo dute egonaldia (60 euro). Udalak diru-laguntzak emango dizkie ondorengo baldintzak betetzen dituztenei: familia ugariak eta guraso bakarreko familiak. (Kuota osoaren %30), familia ugaria izan gabe, bigarren seme-alabaren izenematea egiten dutenek (kuotaren % 30 bigarren izen emate honetan), eta gizarte izaerako diru-laguntzaren bat jasotzen dutenak. (Kuotaren %70).

Eguraldia lagun, jendetza ibili da Mendaroko Kontzezio Azokan

Zapatuan egin zuten Mendaroko Kontzezio Azoka, eta eguraldia lagun, jendetza batu zen, goiz partean bereziki. Bederatzi baseritarrek jarri zituzten postuak frontoian, eta ganadu erakusketa ere egin zuten. Artisau lanak ere jarri zituzten ikusgai, eta sagardo lehiaketa ere egin zuten. Horrez gain, Tio Teronen Semeak taldekoek ikuskizuna eskaini zuten, eta dantza eskolako umeez dantzaldia egin zuten frontoian. Minbiziaren aurkako Gipuzkoako elkarteko boluntarioek ere diru bilketa egin zuten, eta 545,63€ bildu zituzten. Arduradunek eskerrak eman dizkiete laguntza eman zuten guztiei.



Modu berezian ospatu dute Euskararen Eguna DanobatGroupen

Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egin du aurten ere Danobatgroupek. 2000. urtean jarri zuen martxan Euskara Plana enpresa barruan euskararen erabilera eta eza-gutza bultzatu eta sustatzeko. Azken urteetan askotariko ekintzak antolatu izan dituzte Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko eta aurten ere halaxe egin dute. Besteak beste, langileen argazkiak atera dituzte enpresan, eta horrez gain, Ainara Argoitia BARRENEKO kazetariak Zuhaitz Gurrutxagari elkarrizketa umoretsua egin zion Danobaten. Era berean, azken urteotako bideari jarraituz, DanobatGroupek lehiaketa antolatu du kooperatibak dituen herrietan, *Euskara aldean, erabili lanean* lelopean. Internetez erantzuteko galdetegi bat prestatu zuten, DanobatGroupeko hiztegi teknikoa erabiliz. Edurne Bilbao eta Maier Leiaristi (beheko argazkian) izan dira irabazleak. Euskal Herriko Landetxe batean bi lagunentzako asteburuko egonaldia irabazi du bakoitzak.



Bihar jarriko dituzte salgai Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako sarrerak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen urtarilaren 2an aurkeztuko dute Elgoibarren *Musua* ikuskizuna. Bi saio eskainiko dituzte, (16:00etan eta 18:30ean) eta saio horietarako sarrerak bihar jarriko dituzte salgai. Bi aukera egongo dira sarrerak erosteko: Herriko Antzokiko lehiatilan, 19:15etik 21:45era, edo www.kutxabank.eus webgunean. Helduek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta umeez, aldiz, 6 euro. Gazte Txartela dutenek eta Ludotekako bazkideek prezio berezia izango dute: 4 euro haurrak / 6 euro helduak. Prezio murriztua duten pertsonak baldintzak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute. Pertsona bakoitzak zortzi sarrera erosi ahal izango ditu gehienez.

UZURI OPTIKA

40 URTE ELGOIBARTARREN ZERBITZURA

1978ko abenduaren 21ean zabaldu zuen Uzuri Larrañagak optika Elgoibarren. 40 urte pasatu dira ordutik. 2015ean hil zen Uzuri gaixotasun baten ondorioz, eta gaur egun Uzurien alaba Amaia Amasorrainek darama amak hasitako negozioa. Amaren lanari aitortza egiteko, eta elgoibartarrei eskerrak emateko 40. urteurrena ospatuko dute datorren urtean zehar.

- AINHOA ANDONEGI -



Ana Casquero, Marijo Garate, Neli Pinilla, Itziar Badiola, Iraia Barrutia eta Amaia Amasorrain.

“Lan egin, bezeroei konfiantza eman eta merkatuaren beharretara egokitzen jakitea da irauteko sekretua”



▶ AMAIA AMASORRAIN OPTIKARIA

◆ Nola sortu zen Uzuri optika?

Nire aiton-amonek bitxi denda bat zeukaten Bergaran, eta bitxieiz gain, betaurrekoak saltzen zituzten han. Oftalmologoaren errezetarekin joaten ziren herritarrak, eta bitxi dendan egiten zizkieten betaurrekoak.

Orduan ez zegoen optika ikasketarik, eta optikarik ere ez zegoenez, betaurrekoak bestelako establezimenduetan saltzen zituzten. Gerora, nire aitonak egin zituen optika estiloko ikasketa batzuk Bartzelonan, eta Bergaran zabaldu zuen optika. Nire amak aitonaren bidetik jarraitu zuen, eta Goi Mailako Optika ikasketak egin zituen Madrilan. Hirugarren promozioko ikaslea izan zen ama. Oftalmologia eta optika desberdinak dira: Oftalmologoak medikuak dira, Medikuntza ikasten dute eta gero oftalmologian espezializatzen dira. Gu optikoak gara. Familiatik datorkigu optikarako zaletasuna. Nire osabak ere optika ikasi zuen eta berak eman zion segida aitonaren optikari Bergaran. Amak bere bidea egin nahi zuen, eta ikasketak bukatu bezain laster Elgoibarko Uzuri optika zabaldu zuen, 21 urterekin. King-Kong-en kokatu zuen optika, gaur egun Doña Mercedes okindegia dagoen tokian, eta handik urte batzuetara Debako optika zabaldu zuen.

Ama eta beste langile bat hasi ziren, eta handik bi urtera sartu zen Ana Casquero. 38 urte daramatza Casquerok hemen. Marijo Garate ere orain dela 30 bat urte hasi zen. Egia esan, langile guztiek daramate urte pila bat hemen, nik baino gehiago. Gaur egun zazpi langile gaude Deba eta Elgoibarrerako; bi optikari eta bost laguntzaile. Langileek oso ondo ezagutzen dituzte herritarrak, gertuko tratu ematen diegu, eta hori asko eskertzen dute. Nire amak ere Elgoibarko jende gehiago ezagutzen zuen Bergarako baina. Oporretan joaten ginenean bergarar asko oharkabean pasatzen zitzaizkion, baina elgoibartarrak denak ezagutzen zituen.

◆ Zuk ere familiako tradizioari jarraituz, Optika ikasi zenuen.

Farmazia ikasketak egiten hasi nintzen lehenengo, baina hura ez zen nirea. Nik optika ezagutzen nuen ume-umetatik. Sarri etortzen nintzen amarekin hona, eta nerabezaroan hasi nintzen berari laguntzen; dendako enkargu txikiak egiten nituen. Optika gustatzen zitzaidan, eta amak negozioa edukitzeak gauzak erraztu zituzten. Farmazia utzi eta optikarako bidea hartu nuen. 2010ean hasi nintzen lanean hemen. Amarekin hasi nintzen, eta bera hil zenean nik neuk hartu nuen optikaren ardura.

◆ Nola aldatu da optikagintza eta Uzuri bera 40 urte hauetan?

Gaur egun ematen den zerbitzua askoz sofistikatuagoa da;

1992ko irudia. Hasierako lokalaren erakusleihoa.

kalitate handiko zerbitzua ematen dugu. Lenteetan aukera zabala daukagu, eta gainera, norberaren beharretara egokitzen dira. Ez soilik ikusmen beharretara, baita aurpegiaren behar fisikotara ere. Lente eta betaurreko erabat pertsonalizatuak egiten ditugu. Betaurrekoen mundua asko aldatu da. Lehen gaizki ikusita zegoen betaurrekoak eramatea, zatarrak ziren, protesisi moduan hartzen zituen jendeak eta inork ez zuen nahi izaten betaurrekoak jartzea. Umeek gaizki pasatzen zuten betaurrekoekin ikastolara joaten ziren lehen egunean, baina orain alderantzizkoa gertatu da. Moda osagarri bilakatu dira betaurrekoak. Batzuek estetika hutsagatik soilik erabiltzen dituzte eta badaude gaizki ikusten dutela esaten duten umeak ere betaurrekoak eraman nahi dituztelako. Lentilletan ere asko hobetu da egoera. Hasieran lentilla gogorrek bakarrik zeuden eta askok oso gaizki pasatzen zuten. Gaur egun lentilletan ere sekulako aukera dago.

♦ **Ikusmen arazoak ez ezik, gaur egun entzumen arazoak ere lantzen dituzue Uzurri.**

Bai, jende askok ez dakien arren, aspaldi hasi ginen horrekin ere. Nire ama hasi zen. Hala ere, bezero gehienak ikusmen kontuengatik etortzen dira. Audifonoak oraindik gaizki ikusita daude, lehen betaurrekoekin gertatzen zen fenomenoaren errepikatzen da. Jendea audifonoekin ez da ondo ikusten, protesiak dira eta jende askok ez ditu nahi izaten, estetikagatik. Baina funtzionalitate aldetik oso ondo daude. Hilabetez doan probatzeko aukera eskaintzen dugu, eta normalean, probatzen duenak audifonoa erosi egiten du. Hori bai, jarrera negatiboarekin datorrenak audifono onenari ere trabak aurkituko dizkio.

♦ **Zein da Elgoibar bezalako herri batean komertzio txiki batek 40 urte irauteko sekretua?**

Lana ilusioz eta gogoz egitea, ez dago besterik. Lan egin, bezeroei konfiantza eman eta merkatuaren beharretara egokitzen ja-



kitea da irauteko sekretua.

♦ **Zer suposatu du zuretzako Uzurri 40 urte betetzeak?**

Ilusioa egin dit. Amak egindako lana goraiatzeko eta herritarren konfiantza eskertzeko aitzakia izango da 40. urteurrena. Amarekin asko gogoratzen naiz egun hauetan, eta emozionatu egiten naiz. Gogoia daukat urteurrena ospatzeko. 40 urte betetzea ez da broma.

♦ **Nola ospatuko duzue 40. urteurrena?**

Abenduaren 21ean dendan bertan egingo dugu ospakizun txiki bat langileekin, lagunekin eta senideekin, eta bezeroen artean bizikleta bat zozketatuko dugu. Herritarrekin datorren urtean ospatuko dugu. Hilero-hilero egingo ditugu eskaintza eta promozio bereziak beraietzako.

<p>JVC LT - 49VU63M LED TELEBISTA</p>  <p>49" 4K UltraHD - Wifi - Bluetooth HDR10 - 2 USB - Smart TV 3HDMI/Dolby - HLG</p> <p>439€</p>	<p>ELECTROLUX EW8H4864IB LEHORGAILUA</p>  <p>8kg Sensore bitarteko lehortzea (automatikoa) Kotilarentzat 5 programa Sintetikoentzat 3 programa Autoreverse funtzioa - LCD Display-a</p> <p>579€</p>	<p>BOSCH BBH 21830L XURGAGAILUA</p>  <p>132€</p> <p>Erratza forma duen xurgagailua 18 V kargagarriak Boltsarik gabekoa Eskuko xurgagailu desmontagarri biki bat dakar</p>
<p>MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es Dendako prezioak. Produktuek agortu arte</p> <p>Etorri eta eraman gure gabonetako katalogoal</p>		



25 urte pasatu dira argazki batetik bestera. Goian, Iker Rodriguez eta Oier Gurrutxaga; behean, Patxi Zabaleta eta Gorka Errezil.

Bueltan da Kokoteraino



Kokoteraino taldearen maketak 25 urte bete ditu aurten, eta urteurren horren harira, taldea berriz elkartu da, kontzertu berezi bat emateko. Sinuösek antolatuta, gaur izango da kontzertua Kultur Etxeko sotoan. Maketako abestiak eta 1996an Elgoibarren ospatu zen Kilometroak jairako prestatutako abestia joko dituzte Kokoteraino taldekoek, besteak beste. Kontzertu horretan, baina, ez dira bakarrik egongo, Ehun Kilo taldeak ere joko du-eta. 22:30ean hasiko da emanaldia.

- AINHOA ANDONEGI -

Orain dela 25 urte hasi zen guztia. Jose Mariren Jolas Aretan ematen zituzten asteburuetan orduak Patxi Zabaletak eta Oier Gurrutxagak; orduak eta orduak. Nolabait esateko, denbora galtzen ari ziren sentsazioa zuten, beraiei musika gustatzen zitzaielako. Musika zuten pasio, eta uneoro diskoak eta cassetteak trukatzen aritzen ziren. Anestesia, S.A., Eskorbuto, La Polla, Kortatu, EH Sukarra, Su ta Gar, Ehun Kilo eta antzerako beste hainbat talde entzuten zituzten. Eta... "gitarra bat izango banegu...", amets egiten zuten.

Bada, amets hori egi bihurtu zen. Oier Gurrutxaga Eskola Kiroleko saskibaloia partidak arbitratzen hasi zen, diru pixkat lortu eta gitarra erosi ahal izateko. Patxi Zabaletari izebak oparitu zion estreinako gitarra, eta amak erosi zion anplifikadorea. Ondo baino hobeto gogoratzen dute non erosi zituzten lehenengo gitarra haiek: "Ermura joan ginen, eta dendan dizdira gehien egiten zuten gitarra erosi genuen. Talmus markakoa zen, eta 17.000 pezeta inguru balio zituen", esan du Zabaletak. Gitarrarekin ateratako lehenengo argazkia ere ez zaio ahaztu: "Zuk atera zenidan", bota dio Gurrutxagari. "Abenduaren 28a edo izango zen, eta etxeko pasiloan atera zenidan".

1992. urtea zen. 15 urte zituzten, eta musika mundurako lehenengo pausoa eman zuten. Bigarren pausoa gitarra jotzen ikastea zen: "VHS bat erosi genuen, eta hari begira ikasi genituen gitarra jotzeko oinarrizko mugimenduak". Patxi Zabaletaren amaren garajearen biltzen hasi ziren, eta orduak pasatzen zituzten han gitarra jotzen, edo beraiek esan duten bezala, "zarata ateratzen".

Ez zitzairen, baina, motibaziorik falta, eta motibazio une horietako batean musika talde bat sortu behar zutela pentsatu zuten. Pentsatu eta egin. Iban Urizarren bitartez ezagutu zuten Iker Rodriguez: "Ikerrek bazeukan bere aitarena izandako anplifikadore bat; 80 watioko Mustang bat zen, sekulako aparatua, eta gurekin baxua joteko prest zegoen". Bateria jolea bakarrik falta zitzairen: "Hori kostatu zitzaigun gehien, garai hartan ez zegoelako Elgoibarren bateria jole askorik". Gorka Errezilekin jarri ziren harremanetan, eta hark esan zien bateria erostekotan zebilela, eta gainera, bere izebak bazeukala entseguetarako aproposa izan zitekeen lokal bat libre. Mundua ireki zitzairen begien aurrean. Bateria erostera animatu zuten Errezil, eta sei hilabetez prest zeukaten taldea. Nahitanahiez izena jarri zioten taldeari, eta izen

Kokoteraino!

horrekin egin ziren ezagun herriko musikazaleen artean.

Patxiren amaren garajea txiki geratu zitzaizen, eta Gorka Errezilen izebaren lokalera lekualdatu ziren, Santa Klarara. Euren abesti propioak prestatzen hasi ziren, eta urte horretan bertan eman zuten estreinako kontzertua lokalean, San Bartolome jaietan. Lehenengo kontzertu ofiziala ere handik gutxira eskaini zuten, urte bereko abenduan. Guassean izan zen, ikasbidairako dirua lortzeko. Zokoan taldearekin jo zuten: "Guk geuk egin genuen kartela. Atzo izan balitz bezala gogoratzen dut kartel hori; oraindik ikusi egiten dut lokaleko horman itsatsita", esan du Patxi Zabaletak. Eta ordutik aurrera hainbat eta hainbat zuzeneko emanaldi eskaini zituzten, Elgoibarren eta baita hemendik kanpora ere. Makina bat abentura izaten zituzten: "Ez geneukan autorik! Bergarako Pol-Pol tabernan jo behar genuen baten Maalan jarri ginen eta auto handi bat zeukan herritar bati eskatu genion instrumentuak Bergarara eramateko, gurekin afaltzearen truke. Gero, autobusez joan ginen gu". Era berean, inprobisatutako saioen bat ere eskaini izan zuten: "Intsumisoen aldeko manifestazio batean bidea moztu zuten Institutu aurrean eta han irten ginen gu gure gitarrak eta baffleak hartuta, *uau, uau, uau txakurrak egitten dau* abesten. 15 urte genituen", gogoratu du Oier Gurrutxagak.

Oso azkar zihoan dena. Gitarrak erosi, taldea osatu, zuzenekoak eskaini eta abiadura berean etorri zen estreinako maketa ere, 1993an. Billabonako IZ estudioan grabatu zuten lan hura, sei abestirekin. Protesta eta borroka kutsua zuten abestiek, eta garaian garaiko gazteen kezka eta ezinegona islatzen zuten. Letra gehienak beraiek eginikoak ziren, eta gogoratu dute 15 urterekin hori zela lanik zailena. Bazeukaten zer esana, esan nahi zuten, baina ez zekiten nola esan. Hala ere, osatu zituzten abestiak. Maketa kaleratzeaz zeudela jakin zuten bazegoela Nahitanahiez izeneko beste talde bat, eta ezinbestean izena aldatu behar izan zioten taldeari. Iñaki Arregi *Txanfrik* egindako *Kokoteraino* abestia zeukaten eskuartearen, eta ez zioten buruari buelta gehiegirik eman. Garaiko ezinegon eta errebeldiari erreferentzia egiten zion izenak eta ondo definitzen zuten taldea. Kokoteraino izena hartu zuten aurrerantzean. Ez zuten, baina, taldeak asko iraun. Santa Klarako eraikina bota egin zuten eta entseguetarako lokalik gabe geratu zirenez, 95ean desegin zen taldea. Lokalik gabe geratuko zirela jakin zuenean Guillermo Garate alkatearengana jo zuten Patxik, musika talde bat zeukatela eta entseguetarako lokal bat behar zutela esanez. Fundizio zaharreko giltzak eman zizkieten. Udaleko teknikari batekin joan zen Patxi bera fundiziora. Udaleko langilea apur bat kezkatuta ageri zen hango zikinkeria ikustean; Patxik, aldiz, liluraz eta aukeraz beterik ikusten zuten fabrika zahar hura. Berehala zabaldu zen herriko musika taldeen artean fundizioa utzi zuela Udalak entseguetarako, eta orduan hasi zen fundizioko mugimendua. Fundizioari esker musikarien arteko harremanak, sinergiak eta kohezioak asko hobetu zirela uste dute, eta horrek beste

hainbat musika talde sortzea ahalbidetu zuela. Kokoterainok 1996an egin zuten azken grabazioa Elgoibarko Kilometroak jairako atera zuten disko berezi batean. Hiru urte pasatu ziren maketatik, eta musika estiloan aldaketa nabaria dago. Gorka Errezilek ez zuten parte hartu abesti hartan, eta Patxi Zabaletak egin zituen baterijole lanak.


Kokoteraino taldea desegin ostean, taldekide bakoitzak bere bidea egin du. Iker Rodriguez izan da musikarekin harreman gutxiena mantendu duena, baina Gorka, Patxi eta Oier makina bat musika proiektutan aritu izan dira eta aritzen dira gaur egun ere.

25 URTE EZ DIRELAKO ALFERRIK PASATZEN

25 urte pasatu dira *KKtezismoa*, *Fucking the USA* edo *Asteburu hontan* bezalako abesti haietatik, eta iruditu zaie mende laurden badela ospatzeko nahikoa arrazoi. Sotoan topo egin zuten Patxik eta Oierrek kontzertu batean, eta Patxik esan zion: "Gurru, maketak 25 urte betetzen ditu aurten. Zerbait egin beharko genuke". Ez zuten asko behar izan kontu honekin berotzeko, eta gainerako bi taldekideekin hitz egitea erabaki zuten. Iker Rodriguezekin jarri ziren harremanetan lehenengo, eta hark berehala eman zuten baietza. Gorka Errezilekin zeukaten duda gehiago, baina honek ere begi onez hartu zuten taldekide ohien proposamena. *KKtezismoa* abestian losu Iparragirrek joko du teklatura, orain dela 25 urte egin zuten bezalaxe. Emanaldi bakarra eskainiko dute, eta saio berezia izatea nahi dute. Horretarako, Ehun Kilo taldea gonbidatzea pentsatu zuten, Kokoterainok beti izan diolako miresmena Ehun Kilo taldeari: "Heavy-a egiten zuten, euskaraz, eta guretzako sekulakoa zen Ehun Kilo". Sarri ikusi zituzten zuzenean, baina sekula ez zuten elkarrekin jo. Gaurkoa izango da elkarrekin joko duten estreinako aldia, eta azkena. Sotoan izango da kontzertua. Sinuöseren txokoa da sotoa, eta Patxik oso argi zeukan kontzertu hau ere sotoan izan behar zela, batek baino gehiagok esan dion arren aretoa txiki geratuko dela: "Lagun giroan jo nahi genuen, familian, eta horretarako lekurik aproposena sotoa da". Nostalgiaz eta oroimenez beteriko gaua izango da gaurkoa.



1993an Maalako parkean eskaini zuten kontzertuko argazkia.



Elgoibarko

bizi. erosi

herriak irabazi

1.800 €

BANATUKO

DITUGU

10 EROSKETA

TXEKETAN

ESKURATU EZAZU GURE DENDETAN
ELGOIBARKO MERKATARITZA
SUSTATZEKO IPUINA.



ELKO JAKILAKITZA
GOBIERNO VASCO



“Perfekzioaren bila jarraitu behar dut, eta bidean, gozaten ere jarraitu nahi nuke”

► NEREA ARRIOLA MUSIKARIA

16 urterekin, *Triomphe de L'Art* nazioarteko lehiaketa irabazi berri du Nerea Arriola biolin jole mendarorak Bruselan, 15 eta 20 urtekoen artean. Ez du estreinako lorpena, baina bai orain artekoetan “bereziarena eta handiena”. Musikenen dihardu, egun, musika ikasketak egiten, orain arte Raffaella Acella-rekin eta orain Tatiana Samouil irakaslearekin.

- AINARA ARGOITIA -



◆ Nola animatu zinen parte hartzera?

Tatiana Samouil irakasleak animatu ninduen izena ematera. Izena ematen zuten lehenengo 30 lagunak hartzen zituzten, eta sartu nintzen. Jakina, maila jakin bat izan behar da izena emateko, hara ez doalako inor erridikulua egitera, baina animatu egin nintzen. Musikeneko lau ikasle joan ginen, biolako hiru lagun eta ni, baina hara joan arte ez nekien besteak joatekoak zirenik.

◆ Zer nolako esperientzia izan da?

Sekulakoa izan da. Atzerrian ibilia naiz aurrez eskolak hartzen eta Portugalera ere joan nintzen lehiaketa batera, baina hau berezia izan da, lekuagatik eta oso maila handiko musikariek lehiatu naizelako. Lehiakide gehienak Europa ekialdeko edo Asiako herrialdeetako ikasleak izan dira, eta denok dakigu herrialde horietan zer nolako maila duten sokazko instrumentuetan. Eskola handiko jendea dira, oso saiatuak eta disziplinuak. Musika afizio perfektua da haientzat, konstantzia handia eskatzen duelako, perfekzioa lortuko bada. Entseguetan gela berean aritu ginen denok jotzen, nor berera, baina jakina, entzuten genituen ondokoak eta nik uste halako egonezin bat sortzen zitzaigula denoi ere. Egia esan, oso esperientzia aberasgarria izan da. Elisabeth Erregina Saria lehiaketa entzutetsua jokatzen den sala berean jo genuen eta han jotzeko aukera izate hutsa handia da. Sekulako leku polita da, eta soinua izugarria da. Izebarekin joan nintzen, baina aita ere etorri zen gero [Juan Arriola biolin jolea], eta aita han izatea ere lagungarri izan zait, jotzen nuena zer-nola jotzen nuen baloratzeko laguna ondoan izatea beti delako ona.

◆ Nola izan zen finalerako sailkatzea?

Izena ematean programa bat bidali zidaten, derrigorrez jo beharreko obren zerrendarekin, norberak aukeratzeko handik zeintzuk jo. Finalurrekoetan bi pieza jo nituen Beethovenen sonata bat eta birtuosoko beste bat, eta emailez jakinarazi zidaten finalerako sailkatu nintzela. Lau biolin jole sailkatu ginen. Finalean jo

genuen eta egun libre bat izan genuen gero, gala aurretik [sarituek jotzen dute galan]. Libre geneukan egun horretan idatzi zidaten galan jo behar nuela jakinaraziz, baina ez zidaten zehaztu zer merezimendugatik. Galan bertan jakin nuen irabazi egin nuela, eta nire izena entzuteaz bat, sekulako dardara sartu zitzaidan. Eskerrak oholztan kontrolatu ahal izan nituen nerbioak. Pianista handia egokitu zitzaidan [Katsura Mizumoto] eta hori ere abantaila da, pianoak baldintzatu dezakeelako gure lana. Horregatik eskerrak eman nahi dizkiot Musikeneko irakasle Irini Gaitaniri.

◆ Espero zenuen emaitza?

Irabazterik ez. Ondo jo nuen, baina hau ez da lasterketa bat, lehenengo iristen denak irabazten duela. Epaia subjektiboagoa da. Jakina, irizpide objektiboak badaude baloratzeko, baina sekula ez dakizu garbi epaimahaiak zer erabakiko duen. Aipamenen bat jaso nezakeela pentsatu nuen, baina irabaziko nuenik ez.

◆ Zer da sari hau zuretzat?

Curriculumerako garrantzitsua dela ukazina da, musikan ikasketez gain merituek izatea ezinbestekoa delako, baina hori baino gehiago da lanean jarraitzeko ematen dizun bultzada. Ordu asko eskaintzen dizkiot honi eta ordaina iristen dela ikustea beti da pozgarria. Iaz arte Mendaroko musika eskolan aritu naiz aitarekin, eta orain Musikenen dihardut.

◆ Herri txiki bateko musika eskolatik irten zara eta bistan da ez zenuela kontserbatorio handiagoetan ari direnek besteko baliabiderik izango, baina iritsi zara gora.

Bai, hori egia da, baina baliabide asko izateak ere ez du dena ematen. Hemen, jo egin behar da, konstantea izan, eta ni saiatzen naiz. Lortutakoa handia izan da, bai, baina hala ere, goia jo dudala esatea asko esatea da. Biolin jole profesionala izan nahi dut, eta asko daukat ikasteko. Perfekzioaren bila jarraitu behar dut, eta bide horretan, gozaten ere jarraitu nahiko nuke, gozatu ezean oso zaila delako honi eustea.

EUSKARALDIA



Abenduaren 3an amaitu zen Euskaraldia, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko 11 eguneko ariketaren baitan hainbat bizipen bizi izan genituen belarriprest eta ahobiziok. Orrialde hauetan, bi lagunen bizipenak batu ditugu, Belarriprest eta Ahobizi banarena. 12. egunean hitz egin genuen haiekin, ariketa bukatu ondorengo egunean. Bukatu, bukatu delako ariketa, baina jarraitu beharko lukeelako konpromisoak. Horixe nabarmendu dute gure bi elkarrizketatuek.



MATEO CANTU BELARRIPREST

Mateo Cantu (41 urte, ingeniaria) Belarriprest izan da hamaika egunez eta jarraitu nahiko luke izaten. Hala izan da 12. egunean ere, BARREnekin. Euskaraz galdetu dio kazetariak eta euskaraz erantzun dio berak, ahal izan duen guztian.

♦ Euskaraz egin dizute euskaraz dakitenek?

Bai, besteetan baino dezente gehiagok, Elgoibarren behintzat. Lanean ez horrenbestek, hala ere. Bilbon egiten dut lan, eta iruditzen zait han Euskaraldia oharkabeago pasatu dela.

♦ Inguruko zenbat jenderekin aldatu duzu zuk hizkuntza ohitura?

Ez da erraza kopurua zehaztea, baina hamarren bat lagunekin-edo bai Nire kasua ez da beharbada ohikoena. Neu naiz kanpokoia eta eus-

*“Txapa paparrean
jarri nuenetik
jende gehiagok
egin dit euskaraz”*

kaldunak dira niri erderaz egiten didatenak, ni neu saiatzen naizelako euskaraz dakienarekin euskaraz egiten. Badakite italiarra naizela eta pentsatzen dute ez naizela gai euskaraz ulertzeko. Horregaitik diot Be-

larriprest txapa oso lagungarri izan zaidala. Txapa paparrean jarri nuenetik jende gehiagok egin dit euskaraz.

♦ Euskara gehiago entzun duzu egunotan kalean?

Bai, baietz esango nuke. Elgoibarren, bai.

♦ Merezki izan du?

Bai, dudarik gabe. Ariketa interesgarria izan da. Balio izan du behintzat elkarrizketa elebidunei bidea egiteko eta euskara gehiago entzuteko. Ni neu

saiatu naiz ahal den ondoen betetzen, baina egia da lanean gehiago kostatu zaidala. Ez dakit zergatik izan den: Bilbon lan egiten dudalako eta han askoz txapa gutxiago ikusi ditudalako, han hemen baino inguru erdaldunagoa dudalako edo lan kontuetan beste erreparatu batekin ibiltzen garelako, ez dakitenak ez baztertzeko-edo.

Elgoibarren parte hartu nuen hasiera ekitaldian eta pozgarria izan zen. Iruditzen zait badagoela Elgoibar euskaldunagoa egiteko aukera.

◆ **Eta orain, zer?**

Eutsi egin behar diogu honi; jarraitu hamaika egun hauetan bezala.

◆ **Txapa janztea lagungarri izan zaizula**

esan duzu. Jarraituko duzu erabiltzen?

Ez dakit, baina beharbada komerziko litzaidake, bai, jendeak ikus dezan euskaraz ondo egin ez arren gaitzela ulertzeko; ez nuke nahi euskaldunek euren hizkuntza baztertzeko nirekin hitz egiteko.

NEREA GURRUTXAGA AHOBIZI

Nerea Gurrutxagak Ahobizi rola aukeratu zuen Euskaraldian izena eman zuenean. Euskara du etxeko hizkuntza, eta, normalean, euskaraz harremantzen da gertukoekin, baina aitortu du ariketak balio izan diola ikusteko uste baino gehiagotan egiten duela erdaraz.

◆ **Euskaraz egin diezu ulertzen zutenei?**

Bai, gehienetan bai, baina konturatu naiz batzuekin badaukadala erdararako joera eta erdaraz zuzentzen zaizkidanekin kostatu egiten zaidala euskaraz egitea, euskaraz ulertzeko gaitzela jakin arren. Esango nuke uste baino zailagoa egin zaidala ariketa. Uste nuen, normalean, dena egiten nuela euskaraz, baina konturatu naiz uste baino gehiagotan egiten dudala erdaraz.

◆ **Lortu duzu normalean erdaraz egiten diozun horri euskaraz egitea?**

Bai. Pare bat kasutan, gainera, txaparik ez zuten jendearekin izan da, ariketarako izena eman ez duen jendearekin. Lehen ere normalean euskaraz egiten nien nik lehenengo berba horiei, baina erdaraz erantzuten zidaten euren eta neu pasatzen nintzen oharkabean erdarara. Hamaika egun hauetan, baina, sumatu ditut ahalegin handiagoa egiten eta horrek erraztu dit niri ere ahobizi izatea.

◆ **Txapa janztea lagungarri izan al zaizu?**

Ez dut uste nire kasuan horrenbeste eragina izan duenik. Hala ere, hiz-

“Euskara ez da bitrinan gordetzeko altxorra. Erreminta da eta erabili egin behar dugu”

kuntza komunitate bat bistartzeko balio izan du, eta hori ere behar dugu euskaldunok: ikustea bagarela batzuk eta izan gaitezkeela gehiago.

◆ **Aukeratu duzun rola betetzeko zailtasun handienak non edo norekin izan dituzu?**

Erdalduntzat neuzkan jende ezagunarekin. Bilbon edo Algorta batean errazagoa egin zait jende guztiari lehenengo berba euskaraz egitea, hemen beste euskara entzuten ez den arren han. Errazagoa egin zait, hein batean Bilbo batean euskaraz egitea ez delako inertzia kontua hemen bezala; han gehiago da hautu kontziente bat, jakin badakidalako normalean erdaraz erantzungo didatela. Gertuko jendearekin, baina, zailagoa egin zait. Hizkuntza-ohitura bat hartua izaten dugu, eta hori aldatzea da benetan zaila. Konturatu naiz erdaraz egiteko

ohitura duten lankideei-eta neuk ere erdaraz egiten didala batzuetan, konturatu ere egin gabe.

◆ **Inguruko zenbat jendekin aldatu duzu hizkuntza ohitura?**

Bi lagunekin.

◆ **Euskaraz gehiago entzun duzu egunotan?**

Ez dakit ba zer esan. Espero edo nahi baino txapa gutxiago ikusi ditut kalean. Iruditzen zait, hala ere, normalean euskaraz kostatu egiten dutenek ahalegin handiagoa egin dutela 11 egun hauetan. Hori bai, irudipena daukat ariketa hasi genuen eguna eta hamaikagarrena ez direla berdinak izan; esango nuke husten joan garela.

◆ **Eta hemendik aurrera, zer?**

Txapa kendu nuen paparretik, baina jarraituko dut Ahobizi rola betetzen. Ahaleginduko naiz behintzat. Iruditzen zait emaitza positiboa izan duela Euskaraldiak eta horri heldu behar diogula. Jarraitu behar dugu euskararen erabileraren alde egiten. Ez da nahikoa euskararen alde egotea, egin ezean. Euskara ez da bitrinan gordetzeko altxorra; euskara erreminta bat da, eta erabili egin behar dugu.

▶ JARA LARREATEGI

GAUTENA ELKARTEKO PSIKOLOGOA

Autismoaren Gipuzkoako Elkarteko (Gautena) psikologoa da Jara Larreategi (Eibar, 1979) eta martitzenean, hilaren 18an, hitzaldia eskainiko du Elgoibarren, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 'Inklusioa eskolan' izenburupean (18:30). Ez da bakarrik ariko. Jimmy Brosa, Gautenako Familien Arretarako Zerbitzuzaren arduraduna, izango du ondoan. Nuala elkarteak antolatutako hitzaldia Udalaren laguntzarekin. Aniztasun funtzionala eta adimen urritasuna duten pertsonen guraso eta lagun taldea da Nuala.

- AINARA ARGOITIA -



“Eskolako dinamika guztiak egokitu behar ditugu ikasle guztientzat izan daitezen probetxugarri”

♦ Hasi gaitzen oinarrizkoenetik. Zer da eskola inklusiboa?

Guztientzat den kalitatezko eskola. Eredu inklusiboan ikasle guztiak pertsonalki zein sozialki sustatzen eta garatzen dira. Denek ikasten dute. Autismoa dutenekin lan egiten dugu guk, eta esan gabe doa autismoa duen pertsona batek beste edozein ikasle dituen eskubide berberak dituela eskolan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko, izan curriculum akademikoko ekintzak, aisialdikoak edo bestela. Behar bereziak dituen umearen ezaugarriak eta beharrak aintzat hartuko ditu eskola inklusiboak, inklusioa ez delako autismoa duen umea beste ikasle baten ondoan jartze hutsa. Horri integrazioa esaten diogu. Eskola inklusiboan, beste ikasleekin egiten den lanak egokia izan behar du autismoa duen ikaslearekin egiteko ere. Labur esanda, inklusioa emango bada, eskolako dinamika guztiak egokitu behar ditugu ikasle guztientzat izan daitezen probetxugarri edo onuragarri. Ahalegina ez du beti eta soilik autismoa duen ikasleak egin behar; sistema bera egokitu behar dugu, ikasle guztiengana iristeko.

♦ Irudipena daukat behar bereziak dituzten haurrak Pedagogia Terapeutikoko irakasleen esku gelditzen direla. Ikasgelan, noren ardura da aniztasun horri erantzuna ematea?

Egia da autismoak oso espektrora zabala duela eta diagnostiko bera izanda ere autismoa duten bi ikasleren beharrak oso ezberdinak izan daitezkeela. Idealena da ikasle hori gela arrunt batean egotea, gainerako ikasleekin batera eta behar dituen laguntzak emanda, eta bere erreferentzia tutorea izatea beti. Egia da, baina, sistema bera oso exijentea delako edo ume horrek dituen zailtasunak handiak direlako batzuetan lan batzuk laguntza-gelan egin beharko dituela, paraleloki, baina helburua beti izango da ume hori gela arruntean egotea gainerakoekin. Autismoaz ari garela egia da batzuek adimen urritasuna ere izan dezaketela eta baita portaera arazo larriak ere eta hezkuntza sistema ohikoak ez dizkigula beti ematen estrategia edo erreminta egokienak. Gela

egonkorrak dauzkagu [ohiko ikastetxeetan laguntza behar handiagoa ikasleentzako dauden gelak] eta gela horietan lantzen dira esaterako ikasgela arruntetan landu ezin daitezkeen autonomiarekin eta funtzionalitatearekin lotutako lan espezifikoagoak, baina eskolan, bere erreferentziazko ikasle adinkideekin batera egongo da beti ikasle hori.

♦ Zeintzuk dira gaur egun inklusiorako dauden zailtasun handienak?

Zaila da. Ume hauek gela barruan izan ditzaketan beharrak aztertu eta baloratzen dira eta horren arabera erabakitzen da gero laguntza pertsonala behar duen edo PT bat. Gurasoak kezkatzen dira euren seme-alabek ez dutela jasotzen behar besteko laguntza. Egia da beste lurralde batzuekin alderatuta Gipuzkoan nahikoa laguntasun dugula, baina ezin dugu ukatu murrizketak egon direla hezkuntzan ere eta horrek eragin zuzena izan duela behar berezia duten ikasleentzako ikaste-prozesuan, PTak, laguntzaileak, logopedak... gutxitu egin direlako. Baina hezkuntzako profesionalen alde esan behar dugu tutoreak sekulako lana egiten ari direla hogeitaka lagunekoko gela batean autismoa duten umeak edo beste edozein behar dituzten umeak hartzeko. Guk nahi duguna da ume horiek ahalik eta autonomoenak izatea etorkizunean, eta horretarako, ezinbestekoa ikusten dugu bizitzako lehen sei urteetan behar dituzten beste laguntza izatea autonomia pertsonalari, komunikazioari eta funtzionamenduari lotutako edukiak lantzeko. Ez dena erreala da 12 urteko ikasle batek uneoro laguntzaile figura bat izatea ondoan, guk nahi duguna ikasle hori autonomia izatea denean. Baina horretarako pertsonala behar da, baliabideak behar dira... eta hori, hitz batean, dirua da. Dirua jarri behar da, eta gelako ikasle kopurua txikitu.

♦ Zeintzuk dira gurasoen kezka nagusiak?

Umearen adinaren arabera aldatzen dira kezkak. 3-4 urteko umearen gurasoen kezkak epe laburrerakoak dira, bere adineko

“Seme-alabei erakutsi behar diegu askotarikoak gaudela eta denok behar dugula lekua”

umeen eboluzioari lotutakoak: Hitz egin ahal izango du?, Pardela kendu ahal izango diof? Jolastu al izango da beste umeekin? Lehen Hezkuntzara gerturatu ahala kezka aldatu egiten dira: irakurtzeko gai izango da? Kuadrillarik izango du?. Aurrerago hasiko dira gurasoak etorkizunaz kezkatzen. Ni falta naizenean gai izango da bizitza autonomoa egiteko? Nik beti esaten diet gurasoei unean-uneke beharrei erantzun behar diegula, ezin dugulako jakin autismoa duen 2 urteko ume batek zer nolako bizitza izango duen hamar urte barru, neurea zelakoa izango den ere ezin dezake dalako esan. Autismoa izategatik ez du etorkizuna markatuta. Kontrakoa. Zorionez, ezin dezakegu ezer ziurtasunez esan. Sinistu ezineko aurrerapenak ikusten ari gara. Garaian esku hartu den kasu batzuetan autismoaren sintoma asko desagertu egin dira nerabazarorako. Pronostiko oneko umez ari naiz, jakina, baina 17 urte daramatzat Gautenan eta egia da egunero harritzen naizela. Badaude beste batzuk ezingo dutenak sekula ibilbide hori egin, baina autismoa hori da: kasu bakoitza kasu bat da.

♦ **Jendarte baztertzaila da gurea, baina eskola inklusiboa eskatzen ari gara. Eskola erreminta ezinbestekoa dela ezingo dugu ukatu, baina...**

Ez da erraza, ez. Ume-ume direnean errazago onartzen ditugu aniztasun funtzionala dutenak ere, baina nerabazarora arri-matzeaz batera hasten dira arazo handienak. Bakardade handia bizi dute. Jazarpen kasuak ere badaude. Premia berezi handieneko umeak dira gutxien jazarpen ditugunak ez dituztelako inklusiorako horrenbeste aukera, eta gainera, euren ezinak horren agerikoak izanda ez dagoelako batera ondo ikusia haien kontra egitea, baina funtzionamendu handiko autismoa izan arren, adimen urritasunik ez duten gazteek okerrago pasatzen dute. Eskola kontuak jarraitzeko gaitasuna dutenak dira, baina mundu zorrotz honetan harremanentzeko arazo handiak dituztenak, eta jakina, inguruak berehala jarriko die arraro etiketa. Lehen Hezkuntza bukatzean hasten dira jazarpen kasuak, eta ugariak dira.

♦ **Adina aipatu duzu. Eskolan ere ez da gauza bera izango autismoa duen 2 urteko umea hartzea edo 16 urtekoa.**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza oso konplikatu da. Tutoresak erreferentzialtasuna galtzen du, ikasgai bakoitzerako irakasle bat dutelako, dinamika bera ere aldatzen da eta laguntzailearen figura desagertu. Gure Hezkuntza sistema hau emaitzei oso lotua dago, erabat lotua, eta jakina neska-mutil hauek eskolazte indibidualizatuagoa behar dute. Gai akademikoak baino gai funtzionalak gehiago landuko diren gelak behar dituzte.

Lagunengandik ere urruntzen hasiko dira nerabazaroran, gai askotan ezingo dielako jarraitu eta sare sozialen kontuan galduta dabilelako. Kontzientziazio lan handia daukagu egiteko, baina lan hori Haur Hezkuntzatik bertatik hasi behar dugu. Askotarikoak garelako erakutsi behar diegu umei; denok daukagula lekua gizarte honetan eta denoi dagokigula besteei lekua egitea. Aisiaren gaia

ere oso garrantzitsua da. Esan dugu betiko lagunengandik urruntzen hasten direla ume hauek eta horregatik sareak edo espazioak sortu behar ditugu aukera izan dezaten beren adinako beste batzuekin aisialdiaz gozatzeko. Ari naiz pronostiko oneneko gazteez, jakina, baditugulako

Gautenan beste batzuk autismoaz gain adimen urritasun handia dutenak eta haiek eskaintza eskusiboagoa behar dute, begiraleen zaintza pean.

♦ **Gautenak Deba arrorako duen psikologoa zara. Behar berezirik sumatzen duzu gure eskualde honetan?**

Bai, jakina. Nik 15 urte egin ditut Donostian lanean eta orain Eibarko egoitzan dihardut leku aldaketa eskatuta, eta konturatzen naiz dena dagoela Donostian zentralizatuta. Formazio saio guztiak Donostian ematen dira. Saiatzen naiz, hemen, guraso taldeak sortzen eta eskolak ematen, baina nire ahalen barruan. Gurasoek hitz egiteko lekuak behar dituzte, aisialdi konpartitu baterako espazioak. Ume ezinduentzat eskaintza zabala dago, baina behar bereziak dituzten umeek ez dute horren erraza. Gurasoek ate asko jo behar izaten dituzte, eta azkenerako desesperatu egiten dira. Egia da Elgoibarren aisialdirako gune asko sortzen ari direla Lurotekoen eta Atxutxiamaikaren ekimenez bereziki, baina jakin behar duguna da gure gazte hauek ere adinean aurrera doazela eta beste behar batzuk izango dituztela. Aniztasun funtzionala dutenak ere gizarte honen parte dira; ez dezagun hori ahaztu.

♦ **Beste askotan gertatzen den moduan, denok gara gai hauek ezjakin kasuren bat gertutik tokatu arte, eta ezjakintasunak beldurra dakar sarri eskutik. Zein erantzukizun dugu?**

Ondo-ondoan izan arren, urruti sentiitzen ditugu, bai. Orain ere kezkatuta ikusten ditut Nuala elkarteko gurasoak ez dakitelako norbait etorriko den hitzaldira. Kezka ulertzekoa da, baina nik garbi daukat ez dela jendetza handia bilduko. Normala da. Ni neu ere ez naiz orain fibrosi kistikoaren edo koloneko minbiziaren inguruko hitzaldi batera joango. Gertutik ukitzen gaituenetan barkarik joaten gara halakoetara; ezin gara denera iritsi. Egia da autismoa dutenen gurasoek eurek ere ez dutela nahi denek jakitea zer duten etxean. Beraien inguruak jakinda nahikoa da, baina garrantzitsua da ingurukoek jakitea autismoa zer den eta nola lagundu diezaioketen ume horri. Autismoa duten guraso askoren arazo ohikoena da eurek gaixotzen direnean ez dutela umea norrekin laga, ez dutelako inguruan umea ulertzeko eta zaintzeko gai den inor. Elkartean lasai hitz egingo dute gauza hauetaz, baina egunero inguruan dituztenekin ez. Eta ez da jendeak borondate txarra duela; jendeak ez daki nola gerturatu ume eta guraso horriengana. Horretarako dira hitzaldi hauek garrantzitsuak, baina ezin diegu inori kargurik hartu etorri ez delako, denok ere nahikoa dugulako gure etxeko arduarekin. Hori bai, beste gurasoei eskatu behar dieguna da nor bere seme-alabei erakustea askotarikoak gaudela mundu honetan eta denok behar dugula lekua.

Uxue Alberdi eta Danele Sarriugarte solasean jarri ditu Lankuk, 'Buruz buru' izeneko proiektuan

Zazpi bertsolari eta hainbat kultur adierazpidetako zazpi lagun solasean jarri ditu Lankuk *Buruz buru* izeneko proiektuan, eta zazpi liburuxkaz osatutako bilduma batean eman. Uxue Alberdik, Danele Sarriugartek, Joseba Sarrionandiak, Gorka Urbizuk, Nerea Ibarzabalek, Ruper Ordorikak, Onintza Enbeitak, Eneko Sagardoik, Igor Elortzak, Andoni Egañak, Ilaski Serranok, Julio Sotok, Maite Berriozabalek eta Manex Agirrek parte hartu dute proiektuan, elkarren artean bikoteak osatuta. Kulturgileek jarritako abiapuntuei edo galderei erantzun diete bertsolariek, idatziz. Elgoibartar biek elkarrekin jardun dute. Sarriugartek auzkezpenean azaldu zenez, Alberdik eta berak puntuka jardun zuten solasean, galdera batetik abiatuta. Bere belaunaldiak zer ekarri dion bertsolaritzari galdetu zion eta aurreko belaunaldiak ekarritakoari begira jarri zen Alberdi. Abiapuntuak asko izan dira, eta landutako estiloak ere bai: saia-kerak, ipuinak..., eta bai puntu jartzai-



leek eta baita idazleek ere proiektuari jarraipena emateko gogoia agertu dute.

Bertsolaritzaren genealogia feminista

Emakume bertsolari garaikideen genealogia eraiki dute infografia batean Ainhoa Agirrezaldegi, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Ane Labaka bertsolariek eta Txakur Gorria kolektiboko Malen Amenabar eta Mariñe Arbeek. Uxue Alberdik berak egindako proposamen baten harira batu ziren lau bertsolariek, eta bertsolaritzan bakoitzak izandako bi-

zipenak eta erreferentziak mahairatzeari ekin zioten. Oinarritzako eskema bat egin zuten horrekin eta ariketa osatze aldera, galdetegi bat bidali zieten gero ahalik eta emakume bertsolari eta bertsozale gehienei. 50 erantzunetik gora jasota osatu zuten bilketa eta kontraste lana. Infografian, hainbat mugarri batu dituzte eta azaldu dute mugarri guztiek eragin dietela euren jardunean eta mugarri guztietan eragin dutela emakume bertsolariek kolektiboki. 8 euroan eskura daiteke infografia *Argia*, *Berria*, *Jakin* eta *Lanku*-ren webguneetan.

Trebezia handia erakutsi dute Hamaikasax lehiaketan parte hartu duten saxofoi-joleek



Hainbat herrialdeetatik etorritako saxofoi-jole gazteek hartu zuten parte Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolan jokatu zen Hamaikasax lehiaketan, tartean hiru elgoibartarrek: Miren Serrano, Ander Aizpurua eta Eneko Gilek. Antolatzaileek jakinarazi dute "maila handia" erakutsi zutela saxofoi-jole gazteek. A kategorian (12-16 urte), Paulo Antonio Melo portugaldarra nagusitu zen, eta 750 euroko opari-tartela eta Elgoibarko Musika Bandaren kontzertu batean bakarlari gisa jotzeko aukera irabazi zituen. Era berean, 2010ean Santurtzin emango duten Hamaikasax ikastaroan parte hartzeko matrikula ere eskuratu zuten, debalde. Camille Havion frantziarrak egin zuen bigarren eta 300 euroko opari-tartela jaso zuen. Paula Delgado saxofoi-jole bizkaitarra sailkatu zen hirugarren eta 150 euroko opari-tartela eskuratu zuen. B kategorian 12 urtera artekoak lehiatu ziren, eta Leon Trouve frantziarra gailendu zen. Euromusica Fernaseko produktu sorta jaso zuen sarritzat.

Salgai daude Elgoibarko Izarrak abenduaren 27rako antolatu duen Eguberrietarako bertso-jaialdirako sarrerak

Abenduaren 27an egingo da Eguberrietako bertso-jaialdia Elgoibarren eta abenduaren 10az geroztik salgai daude sarrerak, Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen egoitzan. Urtero legez, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu du saioa, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan, eta aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere izan dute. Uxue Alberdik egingo ditu gai-jartzaile lanak, eta bost bertsolari arituko dira kantuan: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Miren Artetxe, Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga. Herriko Antzokian izango da aurten jaialdia, 22:00etan hasita, eta sarrerak 11 euroan eskuratu daitezke (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 10 euroan). Abenduaren 21 izango da sarrerak eskuratzeko azken eguna, eta epe hori bukatuta, sarrerarik geratzen baldin bada, egunean bertan salduko dituzte, Herriko Antzokian.



Euskara sustatzeko lau urterako ekintza plana onartu du Elgoibarko Udalak

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartu zuen Elgoibarko Udaltzarak azkeneko osoko bilkuran, aho batez. Euskara sustatzeko ezarritako helburu nagusiak jaso dituzte lau urterako plan horretan, eta horiekin batera, baita lehentasunezko ekintzak ere. Hala ere, argi laga dute ez dela proposamen itxia, urtez urteko kudeaketa planean zehaztuko direlako jarduerak, eta helburuak zein lehentasunezko ekintzak ere, egoeraren eta unearen arabera egokituko direla. Plan estrategiko honen bidez Udalak bat egin du Eusko Jaurlaritzak onartutako ESEP egitasmoan jasotako helburu eta neurriekin; nolahi ere, datozen urte hauetarako Elgoibarrerako egokienak izan daitezkeenak hautatu dituzte bertan. Udaleko Euskara Zerbitzuak osatu du plana, Emun Hizkuntza Zerbitzuak enpresarekin lankidetzan, eta herriko hainbat erakunde, elkarte eta norbanakoen ekarpenak hartu dituzte kontuan (2022ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean).

Euskararen erabilera areagotzea du helburu nagusizat planak, eta zehaztu dute datozen urteetarako joko-zelaia ere: kalea eta jendartea. Horretarako, herritarren eta herri-elkarte eta ekimenen parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoak izango dira, jakina, herria euskalduntzea erronka kolektiboa delako. Udaletik nabarmendu dute eginkizun horretan bidelagun dituztela honako elkarte eta taldeak: ikastetxeak, euskaltegiak, 365 talde eragilea, kirol eta kultur elkarteak... eta bereziki, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea, berarekin dituelako Udalak hitzartuta hainbat ekimen eta egitasmo. Administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana ezinbestekoa dela nabarmendu dute bi aldeek, haur eta nerabeentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu eta euskara eta euskal kultura herrian sustatu nahi badira.

Herriko merkataritza sustatzeko ipuina kaleratu du Txankakuak



Txankakua merkataritza elkarteak *Bera eta ezinezko oparia* liburua kaleratu du, herriko merkataritza txikia sustatzeko. Jasone Osorok idatzi du ipuina, eta Mikel Cornejok egin ditu ilustrazioak. Metafora baten bidez hainbat mezu zabaltu nahi ditu Jasone Osorok. Batetik, herrian erosteak aurrez aurreko harremanak, kontaktak, lantzen dituela adierazi nahi du, eta bestetik, herriko dende konfiantza eskaintzen dutela. Irudieri dagokienez, ilustrazio futuristak direla azaldu du Mikel Cornejok. Ipuineko protagonista, Bera, generoz markatu gabeko pertsonaia moduan marraztu duela ere azaldu du. Guztira 2.300 ale argitaratu dituzte, Elgoibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Herri Eskolako eta Ikastolako 5 eta 8 urte bitarteko umeei doan banatu diete liburua, ikastetxeetan. Txankakuako kide diren dendetan ere banatuko dituzte liburua, debalde.

Udaleko ordezkariak Bruselan jaso zuten 2019ko Europako Kirolaren Herria izendapena

Europako Kirol Herri izendatu du ACES Europe erakundeak Elgoibar, eta Udaleko ordezkariak izendapena aitortzen duen bandera jaso zuten Bruselan, Europako Parlamentuan ospatu zen ACES Europako sarien galan. Ane Beitiak Elgoibarko gizartearen talde-lana eta konpromisoa azpimarratu zituen Bruselan. Udalaren edota administrazioaren lana ez ezik, herriko kirol talde



eta elkarleen ahalegina eta elkarlana ere goraiatu zituen, "sinergia horiei esker, hautagaitza sendoa aurkeztu genuelako". Aurrerantzean ere ildo beretik jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute Udal arduradunek: "Kirola egitea gure identitatearen ezaugarri nagusia izaten jarraitzea nahi dugu. Herritar orori kirola egiteko erraztasunak eskaintzen jarraituko dugu, eta era berean, Elgoibar goi mailako kirol ikuskizunak jasotzeko prest dagoela erakutsiko dugu". 30 hiri eta herri baino gehiago saritu dituzte aurten 2001. urtetik hona banatzen dituzten sarietan. Honako hauek dira Elgoibarrekin batera Europako Kirolaren Herri izendapena jaso dutenak: Chianciano Terme (Italia), Gignac (Frantzia), Dudelange (Luxemburgo), Livigno (Italia), Jaca (Espainia), Prelog (Kroazia), Omegna (Italia), Torrijos (Espainia) eta Sesto Calende (Italia).



Lau xake txapelketa asteon Elgoibarren

Xakearen astea izango da honakoa Elgoibarren. Batetik, eguaztenean hasi zen ITS Security 28. Elgoibarko Maisu Handien Nazioarteko Xake Txapelketa, eta abenduaren 18ra arte arituko dira lehia udaletxeko pleno aretoan. Bestetik, atzo amaitu zen irailean hasi zuten 2.200 elo azpiko xakelarientzako Danobat Irekia. Horiez gainera, ITS Security Irekiaren estreinako ekitaldia ere antolatu du Elgoibarko Xake Taldeak biharko (abenduak 15). 50 xakelari arituko dira lehia Kultur Etxeko sotoan, 10:30ean hasita. Azkenik, eskolarteko xake txapelketa jokatu dute domekan, sotoan baita ere, 10:00etatik aurrera.

Gipuzkoako Arku Tiraketa Txapelketa jokatu dute Olaizaga kiroldegian

Gipuzkoako Federazioak eta Elgoibarko Zarta klubak antolatuta, Gipuzkoako Aretoko XXVIII. Arku Tiraketa Txapelketa jokatu dute Olaizaga kiroldegian domekan, abenduaren 16an, 9:00etatik aurrera. Arku modalitate guztientzako Gipuzkoako txapelketa izango da Elgoibarkoa. Kalifikazioan 30 geziko bi serie jaurti beharko dituzte arkulariek, 18 metrora egongo diren ituetara.



Aurkeztu dute C.D. Elgoibarren mendeurrenko liburua



Iaz bete zuen mendeurrenari buruzko liburua aurkeztu zuen martitzenean Club Deportivo Elgoibarrek, mendeurrena ospatzeko ekitaldiei amaiera emanaz. Liburua idatzi duen Koldo Lizarralde Elberdin (Pasaia, 1950) historialari eta idazleak Ane Beitia Elgoibarko alkatea, Jon Basurto C.D. Elgoibarreko presidentea eta Joseba Etxeberria futbolari ohia izan zituen lagun aurkezpenean. Liburua salgai dago dagoeneko eta 30 euroan eskuratu daiteke. Pitzintxun, Gorostizan, Azkue argazki dendan eta klubak Mintxetan duen bulegoan eskuratu daiteke. Datozen bi zapatuetan, abenduaren 15ean eta 22an, liburua saltzeko postua ipiniko dute Kalegoen plazan, Jai Alai tabernaren alboan, 12:00etatik 14:00etara bitartean.

Fibrosi kistikoa gaixotasuna dutenei laguntzeko elkartasun ekitaldia egingo dute bihar



Gehienbat birikietan eragiten duen gaixotasun hereditario, kroniko eta degeneratiboa da fibrosi kistikoa. Ezezaguna den gaixotasun hau ezaguratzeko asmoz, *Fibrosi kistikoaren alde igerian* elkartasun ekitaldia antolatu dute abenduaren 15erako Elgoibarko Udalak, Udal Kirol Patronatuak, Igeriketa Taldeak, Master Taldeak eta Sanlok, FQ Arnasa elkartearekin batera. Ekimenaren sustatzaileek ahal duten lagun gehien jarri nahi dituzte igerian, 17:00etatik 19:30era bitartean, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. Edonork har dezake parte eta guztien artean igerian eginiko distantzia zenbatuko dute amaieran, baina hori gutxienekoa dela zehaztu dute: "Nahi duguna da fibrosi kistikoa bistaraztea". Gaixotasunari buruzko informazioa emango dute Olaizaga kiroldegiko harreraren ipiniko duten mahai informatiboan. Ez dute sarrerarik kobratuko, baina borondatea emateko aukera izango da. Sanlo kirol taldeak ere bat egin du ekimenarekin. Alcorta Forging Group taldeak Zaragozako Maristas taldearen aurka zapatuan jokatu duen partidaren salduko dituzten errifarekin lortzen duten dirua ere FQ Arnasa elkartearentzat izango da.

Felix Sanchez Arrazolak Mugertza Krosean egindako argazkia izendatu dute atletismoko urteko argazki onena

Felix Sanchez Arrazola argazkilari oñatarrak 75. Mugertza kroseko irabazleari, Selemón Barega etiopiarrari, Mintxetako helmugan ateratako argazkia izendatu dute atletismoko urteko argazki onena IAAF Photograph of the Year award argazki lehiaketan. Abenduaren 4an Monacon egin zuten sari banaketan jaso zuen saria eta pozik agertu zen argazkilaria: "Niretzat ohorea da sari hau jasotzea. Niretzat eta baita Elgoibarrarentzat ere", adierazi zuen. Zigor Diez Mintxeta Kroseko arduraduna ere pozik agertu da oso sariagatik eta Mugertza Krosaren 75. urteurrenari amaiera emateko modu paregabea dela nabarmendu du.



Leire Egaña txapelkunorde Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan

Espainiako Ehiza Xehe Txapelketak, gizonzkoenaren 50. edizioa eta emakumezkoenaren seigarrena, jokatu zituzten abenduaren 8an Albaceteko La Roda herrian. Hogei ehiztari lehiatu ziren txapelketa bakoitzean eta Gaztela eta Leioiko ordezkari Lidia Perez gailendu zen emakumezkoetan, bi eper ehizatuta. Leire Egaña elgoibartarrak ere bi eper ehizatu zituen, baina Perezek 14:20an aurkeztu zuen ehizatutakoa kontrol postuan eta 14:21ean Egañak. Minutu horren aldeak erabaki zuen txapelketa eta Perez gailendu zen, 16 urteko ehiztari gaztea. Gizonzkoetan Fernando del Campo ehiztari madrildarrak irabazi zuen Espainiako Txapelketa eta birritan Espainiako txapelkun izana den Arkaitz Egañak 11. postua lortu zuen oraingoan.

'El Inglés' dokumentala sarean ikusgai

David Slater atleta ingelesa da *El Inglés* dokumentaleko protagonista, eta Azkarateko igoeran 1981ean ezarri zuen errekorra jasotzen du, besteak beste. Slaterren seme James Slater zinegileak egin du dokumentala, 2015ean jokatu zuten Azkarateko Igoeran jasotako irudiekin eta 1981eko errekorren lekuko izan ziren hainbat elgoibartari eginiko elkarrizketekin. Julian Azkuek bideoan grabatu zuen Slaterren igoera eta irudi horiek ere sartu dituzte *El Inglés* lanean. Slater aita-semeek 2016an aurkeztu zuen dokumentala Kultur Etxean, eta orain Interneten jarri dute ikusgai: <https://vimeo.com/291298133>.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia handia.
☎ 631 790 555

Adinekoak zainduko nituzke arratsaldetan.
☎ 632 975 035

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile edo orduka. Berehala hasteko prest.
☎ 666 879 746

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile edo orduka. Berehala hasteko prest.
☎ 632 699 477

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest. Orduka. Asteburuetan ere bai.
☎ 631 558 243

Adinekoak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut, etxeetan, tabernetan...
☎ 602 490 595

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile edo orduka.
☎ 612 574 783

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Ospitalean ere bai. Etxeko langile edo orduka. Berehala hasteko moduan.
☎ 631 063 561

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, Etxeko langile edo orduka. Asteburuetan ere bai.
☎ 627 230 784

Umeak zaintzeko prest nago. Goizez.
☎ 652 718 719

Adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.
☎ 615 526 482

Adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.
☎ 605 598 999

Adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo tabernari laguntzaile moduan arituko nintzateke.
☎ 675 965 130

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan.
☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan ere bai. Berehala hasi naiten. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.
☎ 612 232 312

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan ere bai. Berehala hasi naiten. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.
☎ 631 783 541

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 681 310 989

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.
☎ 626 407 923

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat.
☎ 632 733 573

Pertsona arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxeko langile ere bai.
☎ 679 048 129

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Ospitalean ere bai.
☎ 631 987 624

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Ospitalean ere bai.
☎ 632 013 896

Adinekoak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Esperientzia handia.
☎ 642 636 525

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.
☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.
☎ 612 222 362

Adinekoak zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.
☎ 631 145 986

Adinekoak zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Astelehentik ostiralera, egunez.
☎ 632 642 500

ETXEBIZITZAK.....
Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 677 259 560


BESTELAKOAK.....
Butanozko bi berogailu eta izozgailu bat behar ditut.
☎ 602 490 595



Arantxa Alberdi Gabilondo

2018ko abenduaren 12an hil zen, 81 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.



administradores

Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas
Entidad Pública Administradora Local de Asturias



ROSA Mª PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Ur zikinak jasotzeko zorrotenean matxura bat izan dugu komunitatean eta batzuetan gainezka egiten du urak. Konpontzera etorri den iturginak esan digu ezinbestekoa duela etxebizitza batean sartzea kaltetutako zorroten zatia handik aztertzeko. Hala ere, etxejabeak ez dio uzten etxera sartzen. Azkeneko batzarrean etxejabeak jakinarazi diogu komunitatea egingo dela iturginak eragiten dizkion kalteen erantzule. Baina, hala ere, ezetza eman du eta konponketa patiotik egin dadila eskatu du. Jakin nahiko nuke behartu dezakegun iturginari atea zabaltzera.

Legez, etxejabe guztiak daude behartuta euren etxera sartzen uztera. Eraikinaren zerbitzurako konponketak egin behar diren kasuan etxejabeak behartuta daude baietza ematera. Eta zuk aipatu dizun adibide hori legean jasotako adibide garbientako bat da. Etxejabe horrek laga egin behar du bere etxera sartzen eta baita zorroten-zati hori konpontzeko egin beharreko obra guztiak egiten ere.

AHOLKUA: Etxejabe horrek jarraitzen badu ezetzean, bide judizialera jo beharko du komunitateak. Kasu horietan, epaileak aukera dauka prozesu judiziala bukatu aurretik etxejabe hori behartzekoa, izan ere, epaia irten arte zain egon behar izanez gero, arriskua legoke bitarte horretan kalte handiak sortzeko zorroten hori dela eta ez dela.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Nahia!** Gure printzesak atzo 6 urte! Muxu handi bat etxeko eta bereziki, Hodeiren partez.



Zorionak, **prinzesa**, astelehenean 8 urte bete zenituelako. Agurtzaneren partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Maddi**, atzo 9 urte bete zenituelako. Asko maite zaituzten aitaxo, amatxo eta Iritiren partez.




Zorionak, **Lea**, zure 4. urtebetetzean. Patxo handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Laida**, domekan 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Jare**, astelehenean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Nahiaren partez.



Zorionak, **Markel**, gaur 6 urte egin dituzulako. Muxuak familiako guztien partez.



Zorionak, **Oihan**, igandearen 7 urte beteko dituzulako. Familiako eta bereziki, Jare, Danel eta Izarren partez.



Zorionak, **Marko** bihar 2 urte egingo dituzulako, eta **Paula**, astelehenean 3 urte egingo dituzulako. Muxuak familiako eta bereziki, Jare, Danel eta Izarren partez. Ondo pasa!

667 261 248
(Leine)
IKASBAI
AKADEMIA
KLASE PARTIKULARIAK
IKASGO
ACADEMY
ENGLISH CLASSES
ELGOIBARREN

LAGUNAK
colchonaria textil hogar

KALITATEZKO ATSEDENEAN ADITUAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

RPS 183/12

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359
www.uzurioptika.com

Boleto hau ekarriz gero 10€ko deskontua eskuratuko duzu zure erosketan. Erosketa bakoitzeko txartel bat.

Beste deskontuekin ez da metagarria. Baliogarria abenduaren 31 arte.



40.
urteurrena
UZURI
optika audio



14 BARIXAKUA

19:00 Kantu kalejira. Azpilgoetan, zubi hasieran. Antolatzailea: Arno Guraso Elkarte.

22:30 Kontzertua: Kokoteraino eta Ehun Kilo. Kultur Etxeko sotoan, Sinuosek antolatuta.

15 ZAPATUA

10:00 I.ITS Security xake txapelketa. Kultur Etxeko sotoan. Sari banaketa 12:30ean izango da. Antolatzaileak: Udal kirol Patronatua, ITS Security, Gipuzkoako Xake Federazioa eta Zubi Ondo Xake Elkarte.

16 DOMEKA

9:00 Gipuzkoako arku tiraketa txapelketa. Zartak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

11:00 Jaiotza Lehiaketa. Elizako arkupeetan. Sari banaketa meza ondoren egingo da.

11:00 Eskola kiroleko xake txapelketa. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzaileak: Elgoibarko Eskola Kirola eta Zubi Ondo elkarte.

16:30 Antzerkia: 'Satorjator', Ene Kantak. Kultura Sailak antolatuta, Herriko Antzokian.

17 ASTELEHENA

16:30-19:00 Ekialdeko Errege Magoen desfilean parte hartzeko izenematea. Udal Liburutegian.

18 MARTITZENA

13:30 Eskola kiroleko xake txapelketa. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzaileak: Elgoibarko Eskola Kirola eta Zubi Ondo elkarte.

17:30 Eguberrietako musika emanaldia, San Lazaro egoitzan. Antolatzailea: Musika Eskola.

18:30 Hitzaldia: *Inklusioa eskoletan*. Gautena elkarteko Jara Larreategi eta Jimmy Brosak eskainiko dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Ameikutz musika eskolaren Gabonetako kontzertua. San Agustin kulturean.

19 EGUAZTENA

19:30 Kirol Federatuaren urteko sari banaketa, musika eskolako auditoriumean. Antolatzailea: Kirol Patronatua.

20 EGUENA

19:00 Ikastolako DBHko ikasleen jaialdia, Herriko Antzokian. 15:00etan ikasleentzako saioa eskainiko dute.

21 BARIXAKUA

20:00 Musika Eskolako Eguberrietako kontzertua, San Bartolome parrokan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Superlopez'

14 barixakua, 21:30

15 zapatua,

19:00 / 22:15

16 domeka, 19:00

17 astelehena, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
14 BARIXAKUA	15 ZAPATUA	16 DOMEKA	17 ASTELEHENA	18 MARTITZENA	19 EGUAZTENA	20 EGUENA	21 BARIXAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410



Lucia Zabaleta Azurmendi

2018ko abenduaren 5ean hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak



I. URTEURRENA

Manolo Untzilla Ondarre

2017ko abenduaren 8an hil zen, 93 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 15ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Txinpartia euki dozu
bizitza luzian,
zenbat broma ta barre
umore onian,
pintzel fiña eskuan
baita foballian,
Manolo zu zaittugu
gure bihotzian.**



VI. URTEURRENA

Kerman Moreno Iriondo

**Mendietarantz pausoa luzea
bizitzak krudel haizea
nola gairiditu, nola arindu
zu hemen ez izatea.
Zure goxoa, zure barrea
gertu beti umorea
ez hiltzen zenbat saiatzen garen
bizitzen gutxi, ordea,
gugan landatu dituzunekin
segiko dugu bidea.**

Etxekoak

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela. Haren oroimenez VI. urteurreneko meza izango da, egunean, abenduaren 20an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.





Pedro Mugurutza Etorbidean zebrabidea oraindik horiz dago: "Pedro Mugurutza Etorbidean etxebizitza berria eraikitzen aritu diren bitartean zebrabide bat horiz margotuta egon da. Dagoeneko bukatu dituzte obrak, baina zebrabidea oraindik horiz dago. Apur bat aurrerago benetako zebrabidea dago, zuriz. Zebrabide horiak zalantza sortzen du, herritarrek ez dakite zebrabide funtzioa duen edo ez. Lehenbailehen konpondu beharko litzateke, bestela egunen baten istripuren bat gertatuko da".



Urazandiko aparkaleku honetan ezin dira ibilgailu luzeak aparkatu: "Urazandi auzoko aparkaleku hau ez dago egokituta ibilgailu luzeentzat. Argazkian ikusten den furgoneta horren muturra ia errepederraino iristen da, eta une arriskutsuak sortzen dira, ibilgailuak beste erreilera pasatu behar izaten dutelako. Eskertuko genuke aparkalekuak errespetatzea".



Meka aurreko ispiluan pegatina bat jarri dute: "Meka aurrean ibilgailuen joan-etorriak errazteko ispilu bat dago, baina pegatina bat jarri diote erdi-erdian eta traba handia egiten du. Jendeari errespetu pixkat edukitzeko eskatu nahi nioke".



Mendaroko kirolgunean makinak hondatuta daude: "Mendaroko kirolgune berrian kirola egiteko hainbat makina hondatu dituzte. Eskatu nahi nuke makinaren erabilera egokia egiteko, horrelakoak hondatuta denok galtzen dugulako".



Pillarreko aparkalekua oso egoera txarrean dago: "Ezin da aparkaleku bat horrela eduki. Zikina dago. Zaborra, koltxoi zaharrak, iltzeak... Gurpilak ere zulatu izan ditugu behin baino gehiagotan. Eta zikina egoteaz gain, oso ingurune iluna da. Txoko batzuk ez dira ikusten eta iluntzen duenean beldurrez joaten gara. Ingurune hori txukundu egin behar dela iruditzen zaigu".


Lekuederreko berdegunea txakur kakaz beteta egoten da: "Txakur-jabe askok Lekuederreko berdegunea eramaten dituzte txakurrak kaka egitera, eta gero ez dituzte kaka mokordoak batzen. Umeak jolasean ibiltzen dira hor, eta kakaz beteta amaitzen dute. Lotsagarria da. Lekueder beharrean, Kakaleku parkea deitu beharko diogu".



ROSA Mª PINTADO
Etxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net

Bulego kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta personalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeei kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioaren
Lurrakde Kontseilua

DERRIGORREZKO
KOLEGIATZIA

BAI!
MILA ESKER



Innovation
that excites



APROBETXATU
WLTP ARAUDI BERRIA ETA
LORTU NISSAN X-TRAIL BAT
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.